

ERANSKINAK

1. GALDETEGIA

Hizkuntzaren erabilera:

- Oro har, hizkuntza sexista erabiltzen al da zure ikastetxean, hau da, maskulinoa generikoa erabiltzen da bi sexuetako pertsonak aipatzeko?
- Ietik 5era arteko eskala batean, adierazi zenbateraino zauden ados honako baieztapen hauekin: 1 ez dago batere ados eta 5 erabat ados:
 - Nire irakaskuntza-lanaren parte gisa egiten ditudan materialetan ez dut hizkera sexistarik erabiltzen.
 - Ikasgelan, ikasleei zuzentzeko, maskulino generikoa erabiltzen dut neskei eta mutilei buruz hitz egiteko.
 - Txikigarriak erabiltzen ditut neskei buruz hitz egiteko, eta handigarriak mutilei buruz hitz egiteko.
 - Zenbait esamolde erabili ohi ditut, hala nola: "Negartia zara", "Matxotea zara".
- Uste duzu hizkuntzaren erabilera sexistak eragina daukala ikasleen genero estereotipoen barnerakuntzan?

Material didaktikoa:

- Erabiltzen dituzun testuliburuetan, normalean maskulinoan eta femeninoan aipatzen da?
- Erabiltzen dituzun testuliburuaren edukiak emakumeak dira jarraitu beharreko adibideak?
- Erabiltzen dituzun testuliburuaren edukietan agertzen diren emakumeek zer eginkizun dute, oro har?
 - Ia beti paper protagonista dute.
 - Ia beti bigarren mailako zeregina du.
 - Oreka dago paper protagonisten eta bigarren mailakoen artean.
- Erabiltzen dituzun testu-liburuaren agertzen diren irudietan...
 - Bi sexuen irudi positiboa ematen dute
 - Sexuren bat mespretxatzen dute, omisioagatik bada ere
 - Emakumeek genero-rol eta -estereotipo tradizionalak errepikatzen dituzte
 - Emakumeen irudiak beti dira gizonenak baino txikiagoak
 - Oreka dago emakumezko eta gizonezko pertsonaien kopuruaren artean
- Uste duzu material didaktiko sexisten erabilerak eragina duela ikasleen genero estereotipoen barnerakuntzan?

Espazio eta denboraren erabilera:

- Zure gelan, esertzerakoan, ikasleak sexuaren arabera taldekatzen dira, neskak alde batetik eta mutilak bestetik?
- Haurrek jarduera berberak egiten dituzte?
Zertan ematen dute denbora neskek jolastokian? Eta mutilak?

- Zure klaseetan, umez osatutako talde mistoko lana sustatzen duzu?
- Zeintzuk okupatzen dituzte, oro har, honako gune edo jarduera hauek?
 - Jolastokian erdigunea
 - Liburutegia
 - Gelako lehen lerroak
 - Zentroaren antolatutako kultur jarduerak
 - Kirol jarduerak
- Uste duzu espazioaren erabilera desorekatuak eragina duela ikasleen genero estereotipoen barnerakuntzan?

Irakasleen formakuntza:

- Jaso ahal duzu formazioa hezkidetzaren inguruan?
- Uste duzu formakuntza baliagarria eta aberasgarria izan dela klasean praktikan jartzeko?
- Somatzen ahal duzu irakasleen artean formakuntza falta gai honen inguruan? Eman adibideak nahi baduzu:
- Esango zenuke gai zarela edozein jarrera edo iritzi sexista detektatzeko eta horren aurrean egoki jarduteko?
- Zure ustez irakasleen formakuntza ezak eragina du ikasleen genero estereotipoen barnerakuntzan?

Eskola hezkidetzaillea:

- Zure ustez, ikasleak jarrera edota iritzi sexistez kontziente dira?
- Ikusi edo entzun ahal duzu inoiz komentario sexistaren bat ikasle baten partez?
- Horrelako egoera baten aurrean topatu bazara, badakizu zelan aurre egin? Esango zenuke estrategiak eta baliabideak dituzula jarduteko?
- Irakasleek ez badiote garrantziarik ematen edo ez badiote aurre egiten topatu ahal duten sexismoari, ikasleek barneratu ahal dituzte jarrera edo jokabide sexista horiek?
- Garrantzitsua iruditzen ahal zaizu berdintasunerako hezkuntza?
- Martxan jartzen duzu zeure klasean?

Genero sozializazioaren eragileak:

- Txikitatik barneratutako genero estereotipoak eta rolak burutik kentzea oso zaila da. Beraz, onena izango litzateke txikitatik horrelako jokabideak ez barneratzea. Horren ardura talde edo jende askorena da: familia, eskola, komunikabideak, etab. Ados zaude?
- Zeure ustez familiek eragina dute ikasleen sozializazioan?
- Familiek inkontzienteki transmititzen dituzte genero estereotipoak seme-alabei. Ados zaude esaldi horrekin?
- Esanguratsua iruditzen zaizu transmisio horrekin bukatzea? Irakasle moduan zer proposatuko zenuke transmisio horrekin apurtzeko?
- Curriculum ezkutuari behin eta berriz erreparatzen diozu, nahi ez dituzun ideiak eta mezuak ez transmititzeko?

- Eskolan kontuan hartzen da hezkidetza? Martxan ahal dago berdintasun planen bat?
- Zure ustez eskolak ikasleei genero estereotipoak barneratzen laguntzen die?
- Uste duzu hezkidetza irakasle batek bakarrik martxan jartzean eraginkorra izango dela? Edo hezkuntza komunitate osoaren inplikazioa beharrezkoa da?

2. ESKU HARTZEAREN PROPOSAMENA

Lehen Hezkuntzako geletan diseinatutako jarduera guztiek ikasleen garapen osoari laguntzen dioten hainbat gaitasun eta trebetasun eskuratzea errazten dute.

Dokumentu honen barruan, proposatutako jarduerak taldeka zein banaka egitera bideratzen dira; izan ere, horrela, hainbat trebetasun sustatzen dira, hala nola adiskidetasuna eta sozializazioa, eta, aldi berean, norberaren eta norbanakoaren lanaren aurreko erantzukizuna garatzen da.

Jarduerekin hasi baino lehen ikasleen aurrezagutzak ikusteko eta horietatik abiatzeko, galdetegi bat bete beharko du bakoitzak. Galdetegi horretan, genero berdintasunaren, estereotipoen eta hezkidetzaren inguruko zenbait galdera agertzen dira. Horretaz gain, galdetegi berdina pasatuko zaie familiei, haien aurrezagutzak jakiteko. Horrela, ikusi ahal izango da zer nolako testuingurutan bizi diren ikasleak genero berdintasunari dagokionez.

Ikaskuntza eta garapena ebaluatzeko asmoz, galdetegi berdina bete beharko dute saioak bukatu ostean. Modu horretan, saioen ebaluazioa eta ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa egitea posiblea izango da.

Horretaz aparte, hezkidetzari buruzko blog baten link-a konpartituko da ikasleekin, baita euren familiekin ere. Modu horretan, aukera izango dute hezkidetzaren inguruan irakurtzeko eta informazioa eskuratzeko edozein toki edota momentutan. Horrela, haien ezagutza hezkidetzarekiko zabalagoa izango da eta etengabe ikasteko aukera izango dute. Hona hemen hezkidetza blogaren link-a: <https://hezkidetzaskolanetamunduan.blogspot.com/>

Jarraian, proiektuaren barruan garatutako saioak eta jarduerak azaltzen dira.

1.- SAIOA: aurkezpena

Hasi baino lehen brainstorming bat egingo dugu. Horretarako, arbelan 3 zutabe egingo ditugu eta bakoitzean kontzeptu edo termino bat idatziko dugu (hezkidetza, genero berdintasuna eta genero estereotipoak). Geroago, ikasle bakoitzak post-it batean hitz bat idatzi eta itsatsiko du dagokion zutabearen. Horren ostean, arbelan idatzitako termino bakoitzaren definizioa edota azalpena egingo dugu hainbat materialez baliatuz, esaterako, bideoak.

Azaldu zer den - definizioak:

- Hezkidetza
- Genero berdintasuna https://www.youtube.com/watch?v=j7f_c5XhX4s
- Genero estereotipoak: <https://www.youtube.com/watch?v=K6wnjAaPe5g>
<https://www.youtube.com/watch?v=d36phzZib90>

<https://www.youtube.com/watch?v=bAxfkAkhzaA>

2.- SAIOA: aurkezpena

Geure helburua ikasleek genero estereotipoak ezagutzea, antzematea, zalantzan jartzea eta hautematea denez, genero estereotipoetan zentratuko gara. Hori dela eta, bigarren saioan genero estereotipoak sakonago aurkezten hasiko gara, baita ikasleen aurreideiak eta aurrezagutzak ezagutzen ere. Horretarako, klasea bitan banatuko dugu ikasleen generoa kontuan izanda. Alde batetik, mutilen taldea egongo da, eta bestetik, nesken taldea. Talde bakoitzari pertsona baten silueta emango diogu, mutilek mutil bat irudikatuko dute eta neskek, ordea, neska bat irudikatuko dute. Errotuladoreekin, egunkari-ebakinekin eta argizariekin marraztuko dute genero bakoitzarekin erlazionatutako estereotipoak, ideiak, sentimenduak, lanbideak, gustuak, ezaugarriak eta abar.

Ondoren, behin ideia guztiak plazaratuta egonda, klase aurrean aurkeztuko dute euren lana eta aipatuko dituzte idatzitako hitz guztiak. Amaitzeko, taula bat egingo dugu eta bertan ikasleek idatzitako hitzak agertuko dira eta ikasleek erabaki beharko dute ea ezaugarri horiek biologikoak edota kulturalak diren. Horrekin batera, sexu eta genero terminoen arteko ezberdintasunak aipatu ahal ditugu. Bukaerako hausnarketa moduan, honako galdera sorta hauek proposatu ahal dizkiegu ikasleei:

- Gizon edota emakume jaiotzen gara ala egiten gara?
- Nork sortzen ditu genero estereotipoak?
- Zergatik jarraitzen eta barneratzen ditugu genero estereotipoak?
- Hain garrantzitsuak edo indartsuak dira genero ezberdintasunak emakumeak eta gizonak eskubide ezberdinak izateko?

3.- SAIOA: ikerketa eta analisisa (komunikabideak)

Hasteko, idatziko ditugu bi zutabetan, bat emakumeena eta bestea gizonena, eta bertan rola edo estereotipoak idatziko ditugu, gizartean gaur egun existitzen eta ematen direnak, aurreko egunetako birpasa laburra, saio honetan ere erabilgarria egingo zaiguna. Azaldu genero estereotipoak eta ezberdintasuna bermatzen duten hainbat arlo eta horiek saio bakoitzean banan-banan aztertu eta analizatuko ditugu.

Lehenengo saio honetan, komunikabideak eta iragarkiak analizatuko ditugu. Horretarako, hasieran ondoko bideoa jarriko dugu ikasleekin ikusteko.

Publizitatea: https://www.youtube.com/watch?v=n_MU8ayJ1xI

Bideoa ikusi ondoren bost minutuko hausnarketa egingo dugu talde handian, bakoitzaren iritzia emanaz eta hitz bat aipatuz. Komunikabideen ikerketa egiten jarraitzeko ikasleak 3 pertsonako taldeetan kokatuko ditugu eta talde bakoitzari aldizkari edota egunkari bat emango diogu begirada arin bat botatzeko asmoz.

Ondoren, portadak aztertuko ditugu, esateko, titulua eta iragarkian agertzen den pertsonaren itxura era aztertuko dugu. Geroago, barrutik begiratuko dugu eta estereotipo sexisten adibideak bilatuko ditugu. Azkenik, talde bakoitzak bere aurkikuntzak bestean aurrean komentatuko ditu. Aurkezpen horien tartean horrelako galderak bota ahal dira ikasleen hausnarketa bultzatzeko:

- Zeri buruz ari dira aldizkari edo egunkariak?
- Behin eta berriz estereotipo berak errepikatzen dira?
- Zein ideia edota ezaugarri transmititzen dituzte?
- Emakumeak eta gizonak berdin irudikatzen dira?

4.- SAIOA: ikerketa eta analisisa (musika)

Aurreko eguneko gaiarekin jarraituz, saio honetan musikak nola hedatzen eta zabaltzen dituen genero estereotipoak aztertu egingo dugu. Horretarako, hasieran ikasleekin brainstorming bat egingo dugu eta eskatuko diegu pentsatzea ea ezagutzen duten letra sexistak dituzten abestiak. Jarraitzeko, hainbat bideo ikusiko gai honen inguruan eta ikasleei galdetuko diegu ea arazo horretaz kontziente diren. Adibidez, ondoko galderak eginez:

- Ezagutzen dituzue abesti horiek?
- Bazenekiten letra sexistak zituztela?
- Arreta jartzen diozue abesti baten letrari?
- Uste duzu abestien letrak barneratzen ditugula konturatu barik?

Abestiak: <https://www.youtube.com/watch?v=W8fwVYMSIqQ>

<https://www.youtube.com/watch?v=4P1VktEk0vc>

<https://www.youtube.com/watch?v=SAwToc1Q0B4&t=70s>

Ondoren, aurretik aukeratutako abestiez baliatuko gara zeinek letra sexistak dituzten. Gainera, oso aproposa izango da gaur egunean pil-pilean dauden abestiak aukeratzea, era horretan, ikasleengandik hurbilago egongo da eta euren motibazioa eta eragina handiagoa izango da.

Jarduera horretarako, ikasleak taldeka kokatuko ditugu, 3-4 pertsonakoak, eta talde bakoitzari abesti baten letra emango diogu, elkarrekin iker dezaten. Talde bakoitzak letra ozen irakurriko du, eta euren artean abestiaren mezua erabakiko dute, geroago talde handian azaltzeko. Talde bakoitzaren aurkezpena baino lehen oso aproposa izango da abestia entzutea edota bideoklipa ikustea.

Bitartean, horrelako galdera proposatu ahal ditugu hausnarketa jarrera sustatzeko:

- Abestiaren zein atal nahiago duzu?
- Uste duzu abestiaren mezuak eragina daukala gizartearengan?
- Bat zatoz abestiaren mezuarekin? Orduan zergatik uste duzu jendeak entzuten duela?

5.- SAIOA: ikerketa eta analisisa (ipuinak)

Aurreko eguneko gaiarekin jarraituz, saio honetan ipuinek eta istorioek nola hedatzen eta zabaltzen dituzten genero estereotipoak aztertu egingo dugu. Horretarako, hasieran ikasleekin brainstorming bat egingo dugu eta eskatuko diegu pentsatzea ea ezagutzen duten mezu sexistak proposatzen dituzten ipuinak edota istorioak.

Geroago, youtubeko zenbait bideo ikusiko ditugu non oso argi azaltzen diren genero estereotipoak ipuinetan eta horien adibide batzuk.

Ipuinak: txanogorritxu bideoa
https://www.youtube.com/watch?time_continue=1&v=EUPKxeLkq1M&feature=emb_logo eta <https://www.youtube.com/watch?v=r-OER39dSD4>

Bideoak ikusi ostean, 10 minutuko hausnarketa egingo dugu talde handian eta bakoitzak bere iritzia esan beharko du. Horretarako, galdera hauetaz baliatuko gara:

- Zein izaten da emakumeen rola edo papera? Eta gizonena?
- Ipuinetan agertzen diren ezaugarriak aurreko saioetan aipatutako estereotipoekin bat datoz? Eman adibideak
- Maitasunezko ipuinetan nor salbatzen du nor?

Saio honekin bukatzeko, Disney-ko oso ezagunak diren ipuin batzuk aukeratuko ditugu eta talde bakoitzari ipuin bat emango diogu. Ondoren, bertan agertzen diren genero estereotipoak zerrenda batean idatzi beharko dituzte eta bukatzean, klasearen aurrean azaldu beharko dituzte. Talde guztiok aurkeztu ondoren, gehien errepikatu diren estereotipoak orri baten idatziko ditugu. Erabakitako ipuinak oso ezagunak izango dira, era horretan, ziurtatzen gara denok ezagutzen dutela istorioa eta parte hartzeko gaitasuna izango dutela.

6.- SAIOA: ikerketa eta analisisa (hizkera)

Saio honetan sexismoa eta genero estereotipoak zabaltzen eta hedatzen diren beste arlo edo atal bat aztertuko dugu, hizkera eta hizkuntza hain zuzen ere. Konturatu gabe erabiltzen dugun hizkera sexismoz beterik dago, eta horrekin bukatu nahi badugu lehenengo pausua kontziente izatea eta identifikatzen jakitea da.

Hori lortzeko, taldean ondoko bideoa jarriko dugu, non hizkera sexista erabiltzen den: <https://www.youtube.com/watch?v=s82iF2ew-yk> - ¿Qué significa hacer algo como una niña?

Bideoa ikusi ostean, hausnarketa egingo dugu talde handian eta horretarako eskatuko diogu ikasle bakoitzari hizkera sexista erabiltzen den adibide bat bilatzea. Horretaz aparte, gauza edo ideia berdina adierazteko modu ez sexista batez pentsatzea eskatuko diogu. Behin denek euren ariketa eginda dutela, ozenean komentatuko dituzte eta kartulina handi batean idatziko dituzte, behar izatekotan eskura izateko eta hitz egiteko modu sexista baztertzeko eta ez erabiltzeko.

Amaitzeko, hizkuntza sexistaren inguruko bideo bat ikusiko dugu, TED talk bat oso aproposa dena ikasleekin ikusteko eta euren buruak hausnarketa moduan martxan jartzeko, hau da, bideoak hausnarketa jarrera sustatzen du. <https://www.youtube.com/watch?v=O UTk8ED4T8> – TED talk

7.- SAIOA: ikerketa eta analisisa

Saio honetan ikasleek beste generoaren azalean jarriko ditugu, eta ondoren euren ideiak eta ezagutzak ikusi ondoren hausnarketa egingo dugu talde handian. Horretarako, behatu nahi dugu zein den beste generoaren izaerari buruz duten ideia, ea beren burua islatzen duten beren ikaskideek irudikatzen duten horretan, eta izateko eta egiteko aukera berriak aurkitu nahi ditugu. Gelan planteatzen da 10 minutuz taldeko neskek mutilak direla irudikatzen dutela eta mutilek behatu egiten dutela, esku hartu gabe. Ondoren,

behatzen ari zen mutil-taldea antzezten hasten da, eta neskek begiratzen dute (edo alderantziz).

Geroago, hausnarketa momentua dator talde handian egingo dena ondoko galderak eta ideiak kontuan harturik. Alde batetik, beste generoaren azalean jarri den taldearentzako galdera sorta:

- Nola sentitu naiz kontrako generokoa egiten?
- Gustuko dudan zerbait aurkitu dut? eta ez dudan zerbait?, zer?, txantxetan edo serio egin dut?

Beste aldetik, beste taldearentzako galderak daude:

- Identifikatuta sentitu al naiz mutilena egiten zuten ikaskideek nola irudikatu duten?
- Identifikatuta sentitu al naiz nola irudikatu dituzten neskena egiten zuten ikaskideek?
- Horrela ikusten dut neure burua?
- Ba al dago haserretu nauen zerbait?

Amaitzeko, talde handian honako ideia eta iritziak komentatuko ditugu: beste generoa ordezkatzeko dugunean estereotipoak sortzen dira, eta horiekin txantxak egiten ditugu, gogaitu egin gaitzakete... Estereotipoekin nola sentitzen garen eta errealitatearekin bat datozen ala ez pentsatzen dugun ikusten dugu.

8.- SAIOA: sorkuntza (ipuin estereotipoak apurtzen)

Saio honen helburua taldeka estereotiporik gabeko ipuin bat sortzea eta idaztea da. Horretarako, aurreko saioan landutako estereotipoak ezagutu eta kontuan hartu behar dituzte, horiek baztertzeko. Talde guztiei istorio berdina kontatuko diegu eta hortik abiatuta ipuina sortzen hasi behar dira, sexismotik aldentutako istorioa sortuz, hau da, istorio tolerantia, berdintasuneko, errespetuzkoa eta demokratikoa. Honako hau izango da istorioaren hasiera:

NASAK aukeratu du gure tailerra estralurtar bat gizakiak ezagutzera etor dadin. Estralurtarrak badaki Lur planetan emakumeak eta gizonak daudela, baina ez daki nola bereizi. Taldeka, parte-hartzaileak arrastoak lantzen saiatuko dira estralurtarrak bereizten ikas dezan. Adierazle horietako batzuk honako hauek izango dira: haurtzaroko jostailuak, etxean egiten dituzten lanak, lana, janzteko moduak, ezaugarri fisikoak, ohiko portaerak.

Gainera, genero estereotipoak eta sexismoa lantzen duten bitartean talde lana eta kooperazioa ere landu egiten da. Horrekin batera, koordinazioa, komunikatzeko gaitasuna, baita sormena ere.

Azkenik, talde guztiek ipuinak bukatu ostean, portada bat egingo dute izenburua erabakiz eta talde handian irakurriko dute, denon artean haien iritzia eta ebaluazioa egiteko. Modu horretan, elkarren akatsetatik eta puntu fuertetatik ikasteko aukera izango dute. Ondoren, ipuin guztiak eskolako ikasle guztien eskura utziko dute eta horrela, edonork izango du aukera estereotiporik gabeko ipuina irakurtzeko eta bertatik, hausnarketa eta ondorio propioak ateratzeko.

9.- SAIOA: sorkuntza (komunikabideen estereotipoak apurtzen)

Idatziko prentsako iragarkien zatiak bilduko ditugu (iragartzen dutenari buruzko aipamen guztiak kenduko zaizkie), ikasleek irudia ikusita soilik jakin beharko dute zein den iragartzen duten produktua. Galderak egingo dizkiegu jakiteko zertan oinarritu diren iragarkiarekin asmatzeko. Ondoren, horrelako galderekin eztabaida txiki bat egingo dugu:

- Jostailua haurrentzat al da? Zergatik?
- Nolakoa da iragarkiaren emakumea?
- Horrelakoak al dira iragarkietan?
- Zergatik iruditzen zaizue hori?
- Zer kolore ditu umearen motorrak? Eta neskarena?
- Zergatik erabiltzen dituzte kolore horiek?

Azkenik, hurrek saldu nahiko luketen zerbaiten iragarpena egingo dute, eslogana asmatuko dute eta iragarkietan aztertu ditugun estereotipoak saihestuko dituzte. Era horretan, estereotipoez kontziente izango dira eta ideia edota ezaugarri horiek baztertu egingo dituzte, sexismorik eta estereotiporik gabeko iragarki tolerantia eta errespetuzkoa egiteko asmoz.

10.- SAIOA: sorkuntza (musikaren estereotipoak apurtzen)

Aurreko saio guztietan aipatutako genero estereotipoak kontuan hartuko dituzte eta horiek albo batean utziz abesti bati letra aldatu beharko diote. Horretaz gain, aurreko saioan aipatu genuen bezala musikaren arloan bideoklipak ere askotan sexistak izaten dira eta estereotipoak hedatzen laguntzen dute. Beraz, ikasleei bideoklipa sortzea ere eskatuko diegu.

Horretarako, ikasle-taldea 5 pertsonetako taldeetan banatuko da eta talde bakoitzak gustuko duen abestia aukeratuko du eta letra aldatzen hasiko da. Hori egiteko, hasieran hausnarketa egingo dute erabakitzeke zer gai aipatu eta landu nahi dituzte, ondoren, letra ideia horren inguruan izateko. Behin letra guztia idatzita izanda, taldean pentsatuko dute zer irudi diren aproposak haiek erabakitako mezua adierazteko eta plazaratzeko. Atal honetan ere, estereotipoak eta emakumeak objektu sexual bezala agertzeari uko egingo diote.

Abestia eta bideoklipa sortuta dutenean, irakaslearen laguntzarekin bideoklipa grabatuko dute, baita abestiaren audioa ere. Ondoren, bi pistak elkartuko dituzte eta talde guztiek hori eginda izatean, talde handian ikusiko dituzte eta denon artean ebaluazioa eta iritzia azalduko dituzte.